# De adultos y jóvenes

Teresa Gil Ruiz
(Profesora de la UPV)

Son las nueve de la mañana y estoy inquieta: estrés, trabajo, responsabilidades, ese dolor... Me reciben bien y me introducen en un despacho agradable. Me siento ante mi homeópata. Me encuentro bien recibida, cómo se interesa por mí y no sólo por mis malestares físicos. Recuerdo sin falta el artículo que tendría que tener ya escrito. Él se interesa por mi identidad social, personal... "¿Qué te preocupa?". No sé muy bien cómo decir tantas cosas: suicidios, agresiones, jóvenes machacados por lo que llaman ley, mujeres brutalizadas, el horror que no cesa... Pero no soy capaz sino de decir que, cada día, me preocupa más y más que la gente que yo creo mi gente reproduzca en las relaciones personales lo que dice condenar o de hecho condena y persigue en las relaciones sociales. Se sorprende y me pide me explique mejor.

Bien, digo, que alguien que ha puesto como objetivo último personal el triunfo social arrase con las personas y las cosas que se oponen a su ascenso, parece que tiene una cierta coherencia lógica y hasta su cínica moralidad. Pero que gentes que están contra la opresión, la


Dalí

# Helduei eta gazteei buruz

Teresa Gil Ruiz
(EHUko irakaslea)

Goizeko bederatziak dira, artega nago: estresa, lana, erantzunkizunak, eta min hori... Harrera ona egin ondoren, bulego atsegin horretara sartzeko esan didate. Nire homeopataren aurrean eseri naiz. Oso ongi hartu nau, nire ondoez fisikoez ez ezik, nire buruaz ere arduratzen da. Oraindik bukatu gabe dudan artikuluaz gogoratzen naiz. Nire nor izateaz, identitate sozialaz... arduratzen da. Zerk kezkatzen zaitu? Ez dakit, bada, oso ondo nola esan, ugari baino ugariago baitira burura datozkidan kontuak: beren buruaz beste egiten dutenak, erasotuak, legearen izenean birrindutako gazteak, emakumeekin egiten dituzten basakeriak, etengabea da laztura... Esateko baino ez naiz gauza, izan ere, larritasuna handitzen zait ohartzean nire ingurumarikoek, guretarrek, harreman sozialetan gaitzesten dutena edo gaitzetsi bide dutena, gero lagunarteko harremanetan berrekoizten dutela. Harri eta zur dago, hori guztia argiago azaltzeko eskatu dit.

Bada, azken helburutzat nork bere garaipena eta garaipen soziala dutenek, nahikari hori lortzeko, erreparorik gabe, bidean traba eta oztopo egiten dioten guztiak txikitzen dituztela esaten diot. Gertakari honek badirudi, nolabaiteko koherentzia logikoa duela,

represión, la exclusión, la colonización, la explotación, el racismo, el machismo, el secuestro de información, la existencia de privilegios y toda otra forma de guerra sucia, que esa gente nuestra nos pueda arrasar o aplastar en la disonancia o en la diferencia o en la opinión distinta, no lo entiendo, no puedo admitirlo, no me es posible aceptarlo. En lo que yo creo la izquierda, la libertad, el respeto, la razón, la posición, la diferencia nunca pueden ser cuestiones absolutas que tengan que liquidar al adversario, de manera que vencer, para unos, tenga necesariamente el correlato de perder, para los otros. Y perder con deshacer y así sucesivamente.

El hombre de mirada atenta que tengo ante mí no sé si me ha comprendido: pero me pregunta de qué manera y quién me ha herido. Y me esfuerzo en decirle que no es necesario que haya una herida personal y que basta con saber escuchar a tu alrededor... ¿O no? Ante el rastro de duda le pregunto si es tan difícil encontrar espacios donde nuestra libertad, saber, creatividad, autonomía, etc no dependan del sometimiento, de la ignorancia, torpeza o dependencia del otro. Combatimos por nuestras grandes señas de identidad, por nuestros emblemas de autodeterminación y el socialismo; pero, a menudo, olvidamos que dejamos abiertas ratoneras, zulos, simas donde establece toda su eficacia psicológica el esquema de actuación sometedor/sometido y donde a veces nos pierde más la identificación con el agresor que con el agredido. He escuchado a veces decir (¡y decirlo a jóvenes!):




bai eta moralitate zinikoa ere. Baina, zapalkuntza, errepresio, baztertze, kolonizazio, esplotazio, arrazakeria, matxismo, informazioaren bahitze eta gerra zikinaren hamaika aurpegiren kontra direnek, gutarikoek, desadostasunean, ezberdintasunean edo bat etortzen ez diren iritzietan lur hartuz, besteak txikitzea edo zapaltzea, ulertezin eta onartezin zaizkit. Nik sinesten dudan ezkerra, askatasuna, arrazoibidearen errespetua, gizarte-maila, ezberdintasuna ez dira absolutuak edo erabatekoak, hau da, ezin izan daitezke aitzakia lehiakidea suntsitzeko. Modu honetara, zenbait irabazle izateak, beste zenbait galtzaile izatea dakar. Eta galdu deseginez behin eta berriz.

Ez dakit aurrez aurre dudan begirada zoliko gizasemeak ulertu ote didan: hala ere, nork eta nola zauritu nauen galdegiten dit. Ahaleginak egiten ditut adierazteko ez dela derrizgorrezko ni neu izatea zauritua, aski dela gure ingurumarian gertatzen dena entzuten jartzea... ala? Zalantza izpiren bat sumatu diodanez, jarraitu dut esanez, horren zaila al da bada, geure askatasunari, sormenari, jakituriari, geure gaintasunari, eta abarri bidea emanez elkarguneak aurkitzea? Ala "argalekin otso eta handiekin leial", ezjakin, baldar edo menpeko izan behar ote dugu? Gure nor izate, burjabetasun eta sozialismoaren alde dihardugu borrokan; baina maiz askotan, ahantzi egiten dugu, sator-zuloak, zuloak eta simak zabalik utzi ditugula eta horietan berebiziko eragin psikologikoa duen zapaltzaile eta zapalduaren eskemari eusten diogula, sarritan erasotuarekin baino aiseago erasotzailearekin lerratuz. Inoiz entzun izan dut (eta gazteei gainera!): "Ez ote da nekatuko! gutxien direnekin dago beti...!" Beste zenbaitetan berriz, "gutxienekin"

“¡Pero cómo no se cansará...!¡Si queda siempre en minoría!”. El problema, sin embargo, es nuestra capacidad como propuesta dinamizadora para que la juventud tome la palabra, se haga cargo interna y externa de ella, tome a su cargo esta tierra y esta sociedad que les pertenece, rehagan los conflictos, las soluciones, las vías que les hemos legado más las que han generado autónomamente. El problema es que la cultura se desarrolla con sus aciertos y desaciertos, con sus libros y canciones, con sus escuelas y sus formas nuevas de relación.

Es cierto que existen unos condicionantes objetivos que tienden a que también nosotros politicemos, sindicalicemos o judicialicemos excesivamente la injusticia y los valores que transmitimos. Algo tan aparentemente simple como el "juego limpio", esto es, declarar a los colegas qué clase de juegos se juegan, con qué reglas, bajo qué supuestos, por qué hay temas innombrables o intocables... Nadie, por otra parte, aceptará fácilmente que empuja y aún abusa del que puede paracer más débil o menos estimado o más solitario. Nadie aceptará que hay conflictos irracionales de "familias" que se arrastran por dependencia de históricos liderazgos. Que se puede llegar a excluir a alguien no siempre por claras y fundadas razones, sino por seguidismo "familiar". Hay ritos para toda esta serie de relaciones de aceptación o rechazo: si quedo o no con esas personas, si cuento o no con ellas para todas las actividades, si su opinión me parece siempre necesaria, si quedo a cenar o a una mani o a un...

Debemos ser capaces de trasmitir a nuestros jóvenes la necesidad del juego limpio en sus relaciones.



Chirico

dagoenak esaten du, "Zer esan dezaket, inork ez dit kasurik egiten eta...!" Nola nahi ere den, arazoa beste nonbait dago, gazteei begira gure gaitasun bultzagilean, alegia. Gazteek hitza har dezaten eta hori euren baitako (barneko eta kanpoko) egin dezaten ahalegindu behar dugu. Azken buruan, lur honen, gizarte honen eskuko izan daitezen, gatazkak bideratzeko, konponbideak aurkitzeko eta utzi dizkiegun bideak eta beren kabuz sortuko dituztenak egin ditzaten. Kontua da, kultura garatzen ari dela eta aurrera egiten duela on-txar guztiekin, liburu eta abestiekin, eskola eta harreman modu berriekin.

Bistakoa denez, badira zedarri objektiboak eta horien eskutik guk geuk ere sobera politizatu, sindikalizatu edo judizializatzen ditugu bidegabekeria eta transmititzen ditugun baloreak. Itxuraz erabat erraza dirudi "zintzo jolas egin", hau da, lankideartean argi adierazi beharko genuke zein den jolasten ari garen jolasa, zein diren jolas-arauak, zein baldintzatan ari garen, zenbait gai ukiezin edo izendaezin zergaitik diren... Bestalde, nekez onartuko du gutariko edonork, bultza eginten dugula, ahulen dirudiena, gutxietsiena edo elkartasun handiena erakusten duena erabiltzen ditugula. Era berean, inork ez du onartuko, garai bateko buruzagitzarekiko menpekotasunak eraginda, gatazka irrazionalak bizirik dirautela "familietan". Horiek etxeko norbait baztertzerainokoak izan daitezkeela, "familia"-azturaz, eta ez arrazoibide garden eta sendoak tarteko. Erritoak daude onartze-eta gaitzeste-harreman guztietarako: pertsona jakin horiekin elkartu edo ez; jarduera guztietarako aintzat hartu edo ez, horien irizpidea beti beharrezko izan edo ez, horiekin afaltzera, manifestazioara, ... joan edo ez.

Gazteek euren arteko harremanetan garbi jolas egin behar dutela transmititu behar diegu. Era berean, transmititu

Debemos también trasmitirles la capacidad de buscar con sosiego y reconocer las señales que definen su territorio. El sabio Me Ti dudaba y desconfiaba de que alguien como Tu, que no podía sosegarse del viaje ni reconocer el lugar ni gozar del pan, el vino y el queso, pudiera entender algo de la lucha de clases (Bertol Brecht). Aprender que ellos son con sus iguales y con los otros, que ellos son con su territorio, que ellos son consigo mismos. Que también tienen que aprender a sentarse consigo mismos, con sus fantasmas y sus miedos, con sus deseos y a veces su soledad. Y nosotros comprender también ese su territorio, el de su intimidad e identidad, el de su decisión y acierto o error. Comprenderlo a la manera de aquel grupo pop, "no les pises que llevan chanclas" y te lo pueden hacer pagar.

El poder juega a delegarse y hay ahí otra trampa de la que es necesario escapar. Porque si el poder da valor, el valor del poder delegado es, a su vez, igualmente dependiente y, otra vez como dice la canción, "nadie da todo por nada..." (MCD). A veces, pretendemos querer convencernos que lo damos todo... por nada, pero nunca es así. Siempre se pide y se pide más, cuando no se pide nada. Porque entonces será una deuda impagable. O que se nos quiera más que a nadie. O establecer esas eternas dependencias de la afectividad tramposa o de la lealtad siempre dependiente. Quiero comprender, aunque me duela, que no puedo ser el amigo de mi hijo, que mi experiencia no es su experiencia, que mis aprendizajes no le evitan a él aprender,


Munch

behar diegu beren mugak lasaitasunez bilatzeko gaitasuna, bai eta euren lekua mugatzen duten seinaleak ezagutzen ere. Me Ti jakitunak diosku, bidaiaz lasaitzeko, lekua ezagutzeko, ogiaz, gaztaz eta ardoaz gozatzeko gauza ez zen pertsonaz zalantzak zituela, eta beldur zela gauza izan ote zitekeen klasearteko borroka ulertzeko. Jakin behar dugu haiek (nor) direla beren gisakoekin eta besteekin, haiek (nor) direla beren eremuarekin, haiek beren baitako direla. Beren baitatik eta beren baitarako eserita egoten ikasi ere ikasi behar dutela, dituzten mamu eta beldurrekin, nahikari eta bakardadearekin. Eta guk ere, gure aldetik ulertu behar dugu, hori haren lekua dela, haren intimitate eta norberatasunarena, haren erabaki zuzen edo okerrena. Harako pop taldearen modura ulertu beharko genuke "ez zapaldu oinetako arinak daramatzat eta".

Boterea eskuordetzen ahalegintzen da eta horra hor, ihes egin beharreko ziria. Izan ere, botereak balorea ematen badu, hots, eskuordetutako botere-balorea, hau bere aldetik, menpeko da eta, berriz ere, abestiak esaten duen moduan "Inork ez du guztia musu-truk eman ohi..." (MCD). Noiz edo noiz sinetsi nahi izaten dugu guztia ematen dugula... musu-truk, baina inoiz ez da horrela izaten. Beti eskatzen dugu eta gero eta gehiago eskatzen dugu, ezer eskatzen ez dugunean. Ezen orduan zorra kitaezina baita. Edo beste inor baino maiteago gaituztela. Edo luzaz irauten duten tranpaz beteriko afektibitate-menpekotasunak egiten ditugu edo beti menpeko diren leialtasunezkoak. Zail egiten bazait ere, ulertu nahi dut, ezin izan naitekeela nire seme-alaben adiskide, nire eskarmentua ez dela haiena, nire ikaskuntzak ez diela balio, ikasi egin beharko dutela,

que mis errores o aciertos nunca le impedirán a él vivir y, por tanto, errar y acertar, a su vez. Decimos, no quiero que mi hijo o que nuestros jóvenes cometan los mismos errores que cometimos nosotros. Y tratamos entonces de planificar esa edad de la vida que es improvisación, descubrimiento, atrevimiento, afirmación, aventura de identidad e identificación.

Me mira sonriente: ¿No ser amigos...? No, "Zilbor-hestea". El amigo de mi hijo es su igual, sus iguales y nosotros estamos ahí, ayudando y dejándoles crecer, mostrando que lo distinto o diferente puede confluir en intereses comunes, aunque no sea necesario que todos seamos idénticos a todos. La mutualidad o el concepto de auzolan lo muestra: pertenecemos a una cultura, aunque nuestra experiencia personal sea distinta para cada uno de nosotros, individualmente considerados; poseemos intereses históricos comunes (sociales, políticos, económicos), aunque también nos diferenciemos personalmente, etc., etc. Pienso que no somos suficientemente críticos, cuando disfrazamos esa persistencia en el mantenimiento del cordón umbilical con los nombres de "amistad", "ser colegas, compañeros"..., por no hablar de las formas que adopta frecuentemente nuestro sexismo y/o patriarcalismo.

La mutualidad, pues, o cómo aceptamos la convergencia "parcial" de intereses comunes con otros más



nik egindako oker-zuzenak nireak direla eta haiek ere, beren aldetik egingo dituztela. Maiz askotan esan ohi dugu ez genukeela nahi gure seme-alabek guk egin ditugun hutsegite berak egitea. Eta horri helduz, leherrenak egiten ditugu bizitzako adin jakin hori erabidetzen, ohartzeke adin horretan inprobisazioa, aurkikuntza, ausardia, nor izatearen eta identifikatzearen abentura nagusi direla.

Irrifartsu begiratu dit. Ez al dira adiskideak? Ez, "Zilbor-hestea" Nire alabaren adiskidea eta hura berdinak dira, harako haien berdinak, hor gara gu, hazten ari dira, erakusten ari gara, ezberdin dena interes komunetan bil daitekeela, nahiz beharrezko ez izan guztiok bat bera izatea. Elkarkidetasunak edo auzolan adigaiak erakusten duen modura: nahiz eta gutariko bakoitzaren esperientzia besteei begira ezberdina izan eta nor bera izan besteengandik ezberdina, kultura bateko eta bereko partaide gara; interes historiko komunak ditugu (sozialak, politikoak, ekonomikoak). Pentsatzen dut ez garela behar bezain kritiko, sasi guztien gainetik, mozorrotutako jokabidez "lankide, adiskide..." izenekin zilbor-hesteari eusteko leherrenak egiten ditugunean, eta hori guztia diot sexuaz eta patriarkalismoaz egiten ditugun erabilerak bazter utziz.

Elkarkidetasuna, beste modu batera esanda, zenbaterainoko ahalegina egiten dugun gure zenbait interes besteenekin bat etortzearekin, sexualitatea askatasun osoz egiten den hautuarekin, askatasuna eguneroko eta unez uneko jarduera konprometitu gisa, zenbaterainokoa den gure gaitasuna

personales, la sexualidad como relación de libre consentimiento, la libertad como un ejercicio comprometido que se realiza puntual y diariamente, la capacidad de establecer compromisos claros en las relaciones, la lucha por liquidar esa esquizofrenia que separa la conducta pública de la privada y hacer que esos valores por los que luchamos a gran escala dentro de lo social tengan cada vez más fuerza en la esfera de lo personal. Yo creo que ésa será la verdadera línea que conecte nuestros territorios, el de los jóvenes y los nuestros, en una red de auzolan y en la que no sólo nos unirá una ikurrina y unas ideas, sino el respeto por experiencias diferenciadas y la necesidad de libertad.

Callamos un momento. Por la ventana se adivina el mar. Me mira, curioso. Pienso que le estoy dando una paliza. Me devulve a la situación: "¿Y su dolor... córdial?". Tengo una imagen confusa: no sé si es esa molestia del diafragma que me comprime de pronto y me angustia, pero tengo una imagen confusa. Gente mayor manifestándose, abrumados. Gurasoak. Casi seis siglos de condena por sospechas. Y me entra el desconsuelo por niños que tendrán que enfrentarse a esa dura situación del Zibor-hestea como una ruptura excesivamente traumática. No, no se trata ni de delegar lo que son nuestras tareas y lo que consiente su


Boa mistura

harremenetan garbi jarduteko, zenbaterainokoa den gure borroka, jokaera publikoa eta pribatua bereizten dituen eskizofreniarenak egin dezan eta gizartean hainbat baloreren alde egiten dugun borroka horrek geure baitan ere eragina izan dezan. Nire iritziz, arestian aipatu dudana litzateke bidea gure eremuak lotzeko, gazteenak eta gureak, auzolan-sarean, eta hor ez gaituzte ikurrinak eta ideiak bakarrik bilduko, esperientzia ezberdinen arabera elkarri zor diogun errespetuak eta askatasun beharrak baizik.

Une batez isilik gaude bi-biok. Leihotik itsasoa soma liteke. Jakinminez so egiten dit. Aspertzen ari ote natzaion bururatzen zait. Eta min hori... bihotz min hori? Irudi nahasia dut: ez dakit diafragma denentz estutzen eta hersten nauena, nola nahi ere, irudi nahasia dut. Adinekoak larrituak manifestazioetan. Gurasoak. Ia sei mendeko zigorra susmoak direla bide. Eta tristura sartzen zait pentsatzen dudanean haurrek aurre egin beharko diotela "zilbor-heste" horren eten traumatiko eta goiztiarrari. Kontua ez da geureak diren egitekoak gazteen --horien heldutasunak har dezakeen neurrian eta gainera, haien zintzotasuna eta leialtasuna dugulako-- esku uztea, ez eta garaia heldu baino lehen bereiztea ere, hori egoztea bezainbatekoa bailitzateke. Lurralde hau gurea eta haiena da, denbora hau gurea eta haiena, borroka hau gurea eta haiena. Diegun maitasunari esker, zubiak eginez ez ditugu bertan behera utziko.

madurez y ello porque contamos con su fidelidad y lealtad, ni de provocar una separación antes de tiempo, porque sería entonces tanto como su expulsión. Son nuestros, porque son de ellos mismos. Ésta es nuestra y su tierra, éste nuestro y su tiempo, ésta nuestra y su lucha. Nuestro amor y los puentes que no les abandonarán.

Hablamos. Me recomienda algo. ¿Qué hará hoy? Pienso que esta tarde marcharé con otras gentes, gritaré en ocasiones, hablaré, sonreiré por saludar a alguien a quien hace tiempo no veo, preguntaré a alguna mujer por sus viajes regulares y de destino incierto, al hombre cómo le va en su trabajo. Le pediré a Koldo aquella canción. El mar en la lejanía. Y, como en la película, volveremos a formar una piña unida. Que no es poco.

Donostia, febrero de 1998

*Teresa Gi Ruiz:*
*Esquemas: Ψ Dinámica / Vincular*
*Tomo IV, Potenciales de Salud (VIII-12)*
*Marca Nº: 2.425.909 / Do - 2001 - 10*




Hizketan ari gara. Zerbait gomendatu dit. Zer egingo duzu gaur? Pentsatzen dut arratsaldean lagunekin aterako naizela: noiz edo noiz oihu egingo dut, hitz egingo dut, aspaldian ikusi gabeko norbaiti diosala irribarrez egingo diot, helmuga ezezaguneko ohiko bidaiez arituko naiz emakume batekin, gisaseme bati berriz, lanaren nondik norakoaz galdetuko diot. Enekori abesti hura eskatuko diot. Itsasoa laino dago. Eta filmean bezala, berriz ere, bat egingo dugu. Alazankoa!

Donostian, 1998ko otsailean

Itzultzailea: Pilartxo Etxeberria
Donostian, 2000ko urtarrilaren 12an

*Txipi Ormaetxea:*
*"Txillardegi. Lagun giroan" (173 - 176 orr.)*
*Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo, 2000*